ALHAO
ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**
2026ko martxoaren 13a, ostirala • 31 zk.

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Organismo Autonomoak

# KULTURA ETA KIROL SAILA

**124/2026 Erabakia, martxoaren 3koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Gazteriaren Foru Erakundearen lanpostuen zerrenda aldatzeari eta osorik argitaratzeari**

Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legeak, zioen azalpenean, autonomia eta foru- eta toki-gobernuei datxezkien araugintza- eta antolaketa-ahalak lanpostuen antolamenduari, lanpostu-zerrendei, arlo funtzionalei edo analisi funtzionalei dagokienez, betiere administrazioen jarduteko marjinak errespetatuz.

Ikuspegi horretatik, 11/2022 Legearen 45. artikuluan, lanpostu-zerrendak definitzen dira euskal administrazio publikoek beren barne-egiturak arrazionalizatu eta ordenatzeko, langile-beharrak zehazteko, lanpostuak betetzeko eskatutako baldintzak definitzeko eta lanpostu bakoitza sailkatzeko tresna gisa, betiere eraginkortasun-, efizientzia- eta arrazionaltasun-irizpideen arabera. Zehazki, artikulu horren 2. paragrafoan xedatzen denez, lanpostu-zerrendek aurrekontuetan diruz hornitutako lanpostu guztiak jaso beharko dituzte, karrerako funtzionarioentzat, lan-kontratuko langile finkoentzat eta behin-behineko langileentzat gordetakoak bereiziz.

Halaber, artikulu bereko 6. apartatuak ezartzen du lanpostu-zerrenden bidez sortu, aldatu edo kenduko direla lanpostuak.

Hala, Gazteriaren Foru Erakundeko Idazkaritza Teknikoaren txostenaren arabera, lehenik eta behin, Zuhatzako aterpetxeari atxikitako administrari-070466 plaza amortizatu behar dela adierazten da, eta, aldi berean, plaza berri bat sortu behar dela, aterpetxe eta gazteriako administraria izenekoa, 250179 kodearekin, eta Zuhatzako aterpetxeari eta Zerbitzu Orokorrei atxikipen bikoitza egiten diena.

Aldaketa horren helburua da LPZri malgutasun handiagoa ematea, administrazioaren baliabideak optimizatzeko eta langileen banaketa lantokien premia espezifikoetara egokitzeko aukera emanez.

Aurrekontu-plaza bakarra da, baina malgutasunez betetzen da bi zentrotan, erakundearen antolamendu-beharren arabera. Horretarako, lanpostuaren “Atxikipena” edo “Lantokiak” zutabean argi eta garbi zehaztu behar dira bi egoitzak, baita lanpostuaren izaera eta mugikortasun-baldintzak ere.

Atxikipen bikoitz hori egiteko, denbora banatuko da Zuhatzako aterpetxearen eta Zerbitzu Orokorren artean.

Bigarrenik, LPZn kirol Jarduaretako Espezialista lanpostura sartzeko titulazioari dagokion 406000 kodearen idazketa aldatzea proposatzen da, idazketa hau zabalduz:

Gizarte- eta kirol-irakaskuntzako eta -animazioko goi-mailako teknikaria (lehen, gorputz- eta kirol-jardueren animazioko goi-mailako teknikaria), bai eta animazio- eta kirol-jardueretako monitore/entrenatzaile gisa jarduteko gaitzen duen goi-mailako beste edozein titulazio ere.

Aldaketa horren helburua da LPZ egokitzea lanbide-irakaskuntzaren esparruan sortzen ari diren titulazio berrietara.

Azkenik, uretako kirol-jardueretako espezialistaren lanpostuaren eskakizun espezifikoen 4000 kodearen idazketa aldatzea proposatzen da, eta honela idaztea:

Entrenatzailearen I. mailako titulazioa (edo baliokidea), espezialitate hauetan: bela (uztailaren 23ko 935/2010 Errege Dekretura egokituta), piragua (urriaren 30eko 981/2015 Errege Dekretura

egokituta) edo arrauna. Titulazio hori baliozkotu egingo da natura-inguruneko eta aisialdiko gidari-teknikariaren titulua badute, bai eta arraunketako, piraguako edo belako lanbide-moduluak dituen beste edozein titulazio baliokide edo goragokoa ere.

Kasu honetan, helburua da eskakizun espezifiko hori uretako jarduerekin lotutako lanbide-moduluak txertatu dituzten beste titulazio ofizial batzuen bilakaerara egokitzea, enplegu publikora sartzeko aukerak zabalduz, emandako zerbitzuaren kalitatea murriztu gabe.

Adiezaitakoaz gain, egoki irizten zaio lanpostuen zerrenda onartzeari eta gero argitaratzeari, azkenez argitaratu zenetik izandako aldaketak jasota, batez ere agiri honen bidez onartzen direnak, daukaten garrantziarengatik.

Adierazitakoarekin bat etorriz, lanpostu-zerrenda hau antolatzen da, bi arlotan banatuta: Zerbitzu Orokorrak eta Egoitzak. Azken horien barruan, bost unitate bereizten dira, egoitza edo aterpetxe izenarekin Gazteriaren Foru Erakundeak kudeatzen dituen hiru lantokiei dagozkienak, gehi atxikipen bikoitzeko plazei erreferentzia egiten dieten unitateak. Horrela, eta mugigarritasun funtzional edo geografiko askea alde batera utzi gabe, lanpostu bakoitza, hasiera batean, Institutuaren kostu-zentro bati edo gehiagori atxikitzen zaio. Era berean, lanpostu bakoitzaren berariazko titulazio eta betekizunak sailkatu eta kodetu dira.

Aurreko guztia kontuan hartuta, Gazteriaren Foru Erakundeko zuzendari-kudeatzaileak lanpostuen zerrenda aldatzeko proposamena egin du. Enpresa Batzordeari egin beharreko kontsultak egin ondoren, proposamen hori erakunde autonomoaren administrazio kontseiluari aurkeztu zitzaion eta bertan Arabako Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluari hura onartzeko proposamena egitea onartu zuen.

Foru Aldundiko eta haren mendeko erakundeen lanpostu zerrenda onartzea Gobernu Kontseiluari dagokio, halaxe xedatzen baitu Arabako Foru Aldundiaren Antolaketari, Funtzionamenduari eta Araubide Juridikoari buruzko martxoaren 15eko 10/2023 Foru Arauaren 8.2 artikuluak, Jarduera Ekonomikoen eta Foru Zerbitzu Publiko deszentralizatuen Kudeaketari buruzko urriaren 30eko 15/1987 Foru Arauaren 9.d) artikuluarekin eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legearen 36.1 artikuluarekin lotuta.

Azkenik, Euskal Funtzio Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legeak, 45.3 artikuluan xedatzen du foru aldundietako lanpostu-zerrendak eta haiei egindako aldaketak dagokion lurralde historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratuko direla.

Kontuhartzailetzako eta Funtzio Publikoko Zerbitzuen aldez aurreko nahitaezko txostena eskatu da.

Horregatik, Gazteriaren Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluak eta Kultura eta Kirol Saileko diputatuak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Gazteriaren Foru Erakundeko lanpostuen zerrendaren aldaketa onartzea, zehaztapen hauen arabera:

a) Administrari-plaza finko etena amortizatzea, 070466.

b) Aterpetxe eta gazteriako administrari plaza finko etena sortzea, 250179.

c) Kirol-jarduueretako espezialistaren lanpostura sartzeko titulazioen 406000 kodearen idazketa aldatzea, eta honela idaztea:

Gizarte- eta kirol-irakaskuntzako eta -animazioko goi-mailako teknikaria (lehen, gorputz- eta kirol-jardueren animazioko goi-mailako teknikaria), bai eta animazio- eta kirol-jardueretako monitore/entrenatzaile gisa jarduteko gaitzen duen goi-mailako beste edozein titulazio ere.



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

d) Uretako kirol-jardueretako espezialistaren lanposturako eskakizun espezifikoen 4000 kodearen idazketa aldatzea, eta honela idaztea:

Entrenatzailearen I. mailako titulazioa (edo baliokidea), espezialitate hauetan: bela (uztailaren 23ko 935/2010 Errege Dekretura egokituta), piragua (urriaren 30eko 981/2015 Errege Dekretura egokituta) edo arrauna. Titulazio hori baliozkotu egingo da natura-inguruneko eta aisialdiko gidari-teknikariaren titulua badute, bai eta arraunketako, piraguako edo belako lanbide-moduluak dituen beste edozein titulazio baliokide edo goragokoa ere.

Bigarrena. Lanpostuen zerrenda osoa, dokumentu honen eranskinean jasotakoa, osorik argitaratzeko agintzea.

Hirugarrena. Argitaratzea erabaki hau eta bere eranskina ALHAOn, eta honen laburpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

Laugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du, eta haren aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio egintza eman zuen organoan bertari, hilabeteko epean, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, urriaren 1eko 39/2015 Legearen, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen, 123. artikuluaren arabera. Bestela, zuzenean aurka daiteke administrazioarekiko auzietarako epaitegian, bi hilabeteko epean, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko martxoaren 3a

*Diputatu nagusia*
*RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE*

*Kultura eta Kirol Saileko foru diputatua*
*ANA MARÍA DEL VAL SANCHO*

*Kirol zuzendaria*
*JUAN JOSÉ ROJO BAZÁN*



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

## I. ERANSKINA: 2025 - LAN KONTRATUPEKO LANGILEEN LANPOSTUEN ZERRENDA / ANEXO I: RELACIÓN DE PUESTOS DE TRABAJO 2025

**Arloa / Área: 1 Zerbitzu Orokorrak / Servicios Generales** **Unitatea / Unidad: 40.**

| *Kodea lanpostua Código de Plaza* | | | *Lanpostua / Puesto* | *Lanpostu mota Tipo de puesto* | *Kontratazio erregimena Régimen de contratación* | *Dedikazio erregimena Régimen de dedicación* | *Betetzeko era Forma de provisión* | *Taldea-azpitaldea Grupo-subgrupo* | *Titulazioa Titulación* | *Hizkuntza eskakizuna Perfil lingüístico* | *Derrigortasun data Fecha preceptividad* | *Berariazko betekizunak Requerimientos específicos* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 01 | 01 | 01 | Idazkaritza Teknikoko Burua<br>Jefe de Secretaría Técnica | EB / N | L | E | L / C | A/A1 | *602000* | 3 | 2017/12/31 | |
| 18 | 01 | 64 | Zerbitzu Orokorretako Teknikaria<br>Técnico de Scios. Generales | EB / N | L | O / N | L / C | A/A1 | *603000* | 3 | 2027/12/31 | |
| 02 | 01 | 02 | Gazteria Teknikaria / Técnico/a de Juventud | EB / N | L | O / N | L / C | A/A2 | | 3 | 2012/12/31 | 006000 |
| 02 | 03 | 04 | Gazteria Teknikaria / Técnico/a de Juventud | EB / N | L | O / N | L / C | A/A2 | | 3 | 2017/12/31 | 006000 |
| 02 | 04 | 72 | Gazteria Teknikaria / Técnico/a de Juventud | EB / N | L | O / N | L / C | A/A2 | | 3 | 2018/01/01 | 006000 |
| 03 | 01 | 06 | Zerbitzu Orokorretako Administraria<br>Administrativo/a de Servicios Generales | EB / N | L | O / N | L / C | C/C1 | | 2 | 1994/12/31 | |
| 03 | 02 | 07 | Zerbitzu Orokorretako Administraria<br>Administrativo/a de Servicios Generales | EB / N | L | O / N | L / C | C/C1 | | 2 | 1994/12/31 | |
| 22 | 01 | 73 | Gazteriako Administraria<br>Administrativo/a de Juventud | EB / N | L | O / N | L / C | C/C1 | | 2 | 2018/12/31 | |
| 22 | 02 | 74 | Gazteriako Administraria<br>Administrativo/a de Juventud | EB / N | L | O / N | L / C | C/C1 | | 2 | 2018/12/31 | |
| 20 | 01 | 68 | Agirien kudeaketako erdi-mailako teknikaria<br>Técnico/a medio de gestión documental | EB / N | L | O / N | L / C | A/A2 | 500001 | 3 | 2021/12/31 | |
| 20 | 02 | 69 | Agirien kudeaketako erdi-mailako teknikaria<br>Técnico/a medio de gestión documental | EB / N | L | O / N | L / C | A/A2 | *500001* | 3 | 2018/01/01 | |
| 21 | 01 | 71 | Gazte-informatzailea / Informador/a juvenil | EB / N | L | O / N | L / C | C/C1 | | 2 | 2018/01/01 | 002000-007000 |

1

Egiaztatzeko helbidea Dirección de comprobación
https://e-s.araba.eus/wps/portal/ConsultaCove
Egiaztapen kodea Código de verificación
66Da-GvkK-XQh2-4mvN

**Arloa / Área: 2 Egoitzak / Residencias** **Unitatea / Unidad: 30.10000 Barriako aterpetxea / Albergue de Barria**

| *Kodea lanpostua* *Código de Plaza* | *Lanpostua / Puesto* | *Lanpostu mota* *Tipo de puesto* | *Kontratazio erregimena* *Régimen de contratación* | *Dedikazio erregimena* *Régimen de dedicación* | *Betetzeko era* *Forma de provisión* | *Taldea-azpitaldea* *Grupo-subgrupo* | *Titulazioa* *Titulación* | *Hizkuntza eskakizuna* *Perfil lingüístico* | *Derrigortasun data* *Fecha preceptividad* | *Berariazko betekizunak* *Requerimientos específicos* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 06 01 10 | Aterpetxeko Zuzendaria / Director/a de Albergue | EB / N | L | O / N | L / C | A/A2 | | 3 | 2012/12/31 | 002000/005000 |
| 07 01 11 | Aterpetxeko dministraria / Administrativo/a | EB / N | L | O / N | L / C | C/C1 | | 2 | 1994/12/31 | 002000 |
| 08 01 12 | Sukaldaria / Cocinero/a | EB / N | L | O / N | L / C | C/C1 | *404000* | 1 | 2021/12/31 | |
| 08 02 13 | Sukaldaria / Cocinero/a | EB / N | L | O / N | L / C | C/C1 | *404000* | 1 | 2021/12/31 | |
| 09 01 14 | Mantenimenduko Ofiziala<br>Oficial de Mantenimiento | EB / N | L | O / N | L / C | C/C1 | *401000-402000* | 2 | 2021/12/31 | 002000 |
| 10 01 15 | Sukladari Laguntzailea / Ayudante de Cocina | EB / N | L | O / N | L / C | C/C2 | | 1 | 2021/12/31 | |
| 10 03 28 | Sukaldari Laguntzailea / Ayudante de Cocina | EB / N | L | O / N | L / C | C/C2 | | 1 | 2021/12/31 | |
| 11 01 17 | Garbiketako eta Zerbitzuetako Espezialista<br>Especialista de Limpieza y Servicios | EB / N | L | O / N | L / C | C/C2 | | 1 | 2021/12/31 | |
| 11 02 18 | Garbiketako eta Zerbitzuetako Espezialista<br>Especialista de Limpieza y Servicios | EB / N | L | O / N | L / C | C/C2 | | 1 | 2021/12/31 | |
| 11 03 19 | Garbiketako eta Zerbitzuetako Espezialista<br>Especialista de Limpieza y Servicios | EB / N | L | O / N | L / C | C/C2 | | 1 | 2021/12/31 | |
| 11 09 38 | Garbiketako eta Zerbitzuetako Espezialista<br>Especialista de Limpieza y Servicios | EB / N | L | O / N | L / C | C/C2 | | 1 | 2027/12/31 | |
| 11 10 20 | Garbiketako eta Zerbitzuetako Espezialista<br>Especialista de Limpieza y Servicios | EB / N | D | O / N | L / C | C/C2 | | 1 | 2021/12/31 | |
| 11 12 22 | Garbiketako eta Zerbitzuetako Espezialista<br>Especialista de Limpieza y Servicios | EB / N | D | O / N | L / C | C/C2 | | 1 | 2021/12/31 | |
| 12 01 23 | Jagolea / Guarda | EB / N | L | O / N | L / C | C/C2 | | 1 | 2021/12/31 | |

2

**Arloa / Área: 2 Egoitzak / Residencias** **Unitatea / Unidad: 30.20000 Espejoko aterpetxea / Albergue de Espejo (Jorge Diez Elorza)**

| Kodea lanpostua / Código de Plaza | Lanpostua / Puesto | Lanpostu mota / Tipo de puesto | Kontratazio erregimena / Régimen de contratación | Dedikazio erregimena / Régimen de dedicación | Betetzeko era / Forma de provisión | Taldea-azpitaldea / Grupo-subgrupo | Titulazioa / Titulación | Hizkuntza eskakizuna / Perfil lingüístico | Derrigortasun data / Fecha preceptividad | Berariazko betekizunak / Requerimientos específicos |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 06 02 24 | Aterpetxeko Zuzendaria / Director/a de Albergue | EB / N | L | O / N | L / C | A/A2 | | 3 | 2007/12/31 | 002000/005000 |
| 07 03 34 | Aterpetxeko dministraria / Administrativo/a | EB / N | L | O / N | L / C | C/C1 | | 2 | 1994/12/31 | 002000 |
| 09 02 26 | Mantenimenduko Ofiziala<br>Oficial de Mantenimiento | EB / N | L | O / N | L / C | C/C1 | *401000-402000* | 2 | 2027/12/31 | 002000 |
| 11 04 29 | Garbiketako eta Zerbitzuetako Espezialista<br>Especialista de Limpieza y Servicios | EB / N | L | O / N | L / C | C/C2 | | 1 | 2021/12/31 | |
| 11 05 30 | Garbiketako eta Zerbitzuetako Espezialista<br>Especialista de Limpieza y Servicios | EB / N | L | O / N | L / C | C/C2 | | 1 | 2021/12/31 | |
| 11 07 36 | Garbiketako eta Zerbitzuetako Espezialista<br>Especialista de Limpieza y Servicios | EB / N | L | O / N | L / C | C/C2 | | 1 | 2021/12/31 | |
| 12 02 32 | Jagolea / Guarda | EB / N | L | O / N | L / C | C/C2 | | 1 | 2021/12/31 | |

**Atxikipen bikoitza / Doble adscripción: Arloa / Área: 2 Egoitzak / Residencias** **Unitateak / Unidades: 30.10000 Barriako aterpetxea / Albergue de Barría 30.20000 Espejoko aterpetxea / Albergue de Espejo (Jorge Diez Elorza)**

| Kodea lanpostua / Código de Plaza | Lanpostua / Puesto | Lanpostu mota / Tipo de puesto | Kontratazio erregimena / Régimen de contratación | Dedikazio erregimena / Régimen de dedicación | Betetzeko era / Forma de provisión | Taldea-azpitaldea / Grupo-subgrupo | Titulazioa / Titulación | Hizkuntza eskakizuna / Perfil lingüístico | Derrigortasun data / Fecha preceptividad | Berariazko betekizunak / Requerimientos específicos |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 11 06 31 | Garbiketako eta Zerbitzuetako Espezialista<br>Especialista de Limpieza y Servicios | EB / N | L | O / N | L / C | C/C2 | | 1 | 2021/12/31 | |

3

**Arloa / Área: 2 Egoitzak / Residencias**  **Unitatea / Unidad: 30.40000 Zuhatzako aterpetxea / Albergue de Zuhatza**

| Kodea lanpostua / Código de Plaza | Lanpostua / Puesto | Lanpostu mota / Tipo de puesto | Kontratazio erregimena / Régimen de contratación | Dedikazio erregimena / Régimen de dedicación | Betetzeko era / Forma de provisión | Taldea-azpitaldea / Grupo-subgrupo | Titulazioa / Titulación | Hizkuntza eskakizuna / Perfil lingüístico | Derrigortasun data / Fecha preceptividad | Berariazko betekizunak / Requerimientos específicos |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 06 04 39 | Aterpetxeko Zuzendaria / Director/a de Albergue | EB / N | L | O / N | L / C | A/A2 | | 3 | 2012/12/31 | 002000/005000 |
| 13 01 40 | Medikua / Médico | EB / N | D | O / N | L / C | A/A1 | *601000* | 3 | | |
| 13 02 41 | Medikua / Médico | EB / N | D | O / N | L / C | A/A1 | *601000* | 3 | | |
| 14 01 42 | Mantenimenduko Arduraduna<br>Encargado/a de Mantenimiento | EB / N | L | O / N | L / C | C/C1 | *405000* | 2 | 2021/12/31 | 001000 |
| 15 01 43 | Txaluparia / Barquero/a | EB / N | D | O / N | L / C | C/C1 | | 2 | 1994/12/31 | 003000 |
| 15 03 65 | Txaluparia / Barquero/a | EB / N | D | O / N | L / C | C/C1 | | 2 | 2021/12/31 | 003000 |
| 15 04 76 | Txaluparia / Barquero/a | EB / N | L | O / N | L / C | C/C1 | | 2 | 2018/12/31 | 003000 |
| 18 01 67 | Kirol Jardueretan Espezialista<br>Especialista de Actividades Deportivas | EB / N | D | O / N | L / C | C/C1 | *406000* | 2 | 2017/12/31 | |
| 23 01 75 | Kirol Jardueretan Koordinatzaile<br>Coordinador de Actividades Deportivas | EB / N | D | O / N | L / C | C/C1 | | 2 | 2018/12/31 | 001000 / 004000 |
| 16 01 45 | Uretako Kirol Jardueretan Espezialista<br>Especialista de Actividades Deportivas Acuáticas | EB / N | D | O / N | L / C | C/C1 | | 2 | 2012/12/31 | 001000 / 004000 |
| 16 02 46 | Uretako Kirol Jardueretan Espezialista<br>Especialista de Actividades Deportivas Acuáticas | EB / N | D | O / N | L / C | C/C1 | | 2 | 1994/12/31 | 001000 / 004000 |
| 16 03 47 | Uretako Kirol Jardueretan Espezialista<br>Especialista de Actividades Deportivas Acuáticas | EB / N | D | O / N | L / C | C/C1 | | 2 | 2012/12/31 | 001000 / 004000 |
| 16 04 48 | Uretako Kirol Jardueretan Espezialista<br>Especialista de Actividades Deportivas Acuáticas | EB / N | D | O / N | L / C | C/C1 | | 2 | 1994/12/31 | 001000 / 004000 |
| 16 05 49 | Uretako Kirol Jardueretan Espezialista<br>Especialista de Actividades Deportivas Acuáticas | EB / N | D | O / N | L / C | C/C1 | | 2 | 2012/12/31 | 001000 / 004000 |
| 16 07 51 | Uretako Kirol Jardueretan Espezialista<br>Especialista de Actividades Deportivas Acuáticas | EB / N | D | O / N | L / C | C/C1 | | 2 | 2014/01/01 | 001000 / 004000 |
| 16 08 52 | Uretako Kirol Jardueretan Espezialista<br>Especialista de Actividades Deportivas Acuáticas | EB / N | D | O / N | L / C | C/C1 | | 2 | 2007/12/31 | 001000 / 004000 |
| 16 09 53 | Uretako Kirol Jardueretan Espezialista<br>Especialista de Actividades Deportivas Acuáticas | EB / N | D | O / N | L / C | C/C1 | | 2 | 2007/12/31 | 001000 / 004000 |
| 16 10 54 | Uretako Kirol Jardueretan Espezialista<br>Especialista de Actividades Deportivas Acuáticas | EB / N | D | O / N | L / C | C/C1 | | 2 | 2014/01/01 | 001000 / 004000 |
| 16 11 55 | Uretako Kirol Jardueretan Espezialista<br>Especialista de Actividades Deportivas Acuáticas | EB / N | D | O / N | L / C | C/C1 | | 2 | 1994/12/31 | 001000 / 004000 |
| 16 12 56 | Uretako Kirol Jardueretan Espezialista<br>Especialista de Actividades Deportivas Acuáticas | EB / N | D | O / N | L / C | C/C1 | | 2 | 2014/01/01 | 001000 / 004000 |
| 09 03 35 | Mantenimenduko Ofiziala<br>Oficial de Mantenimiento | EB / N | D | O / N | L / C | C/C1 | *401000-402000* | 2 | 2017/12/31 | 002000 |

4

| | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 17 | 01 | 58 | Muntai eta Zerbitzuetako Espezialista<br>Especialista de Montaje y Servicios | EB / N | L | O / N | L / C | C/C2 | | 2 | 2017/12/31 | 002000 |
| 17 | 02 | 59 | Muntai eta Zerbitzuetako Espezialista<br>Especialista de Montaje y Servicios | EB / N | D | O / N | L / C | C/C2 | | 2 | 2021/12/31 | 002000 |
| 17 | 03 | 60 | Muntai eta Zerbitzuetako Espezialista<br>Especialista de Montaje y Servicios | EB / N | D | O / N | L / C | C/C2 | | 2 | 1994/12/31 | 002000 |
| 17 | 04 | 61 | Muntai eta Zerbitzuetako Espezialista<br>Especialista de Montaje y Servicios | EB / N | D | O / N | L / C | C/C2 | | 2 | 2021/12/31 | 002000 |
| 17 | 05 | 62 | Muntai eta Zerbitzuetako Espezialista<br>Especialista de Montaje y Servicios | EB / N | L | O / N | L / C | C/C2 | | 2 | 2021/12/31 | 002000 |
| 17 | 06 | 63 | Muntai eta Zerbitzuetako Espezialista<br>Especialista de Montaje y Servicios | EB / N | D | O / N | L / C | C/C2 | | 2 | 2021/12/31 | 002000 |

**Atxikipen bikoitza / Doble adscripción Unitateak / Unidades: 30.40000 Zuhatzako aterpetxea / Albergue de Zuhatza 40 Zerbitzu Orokorrak / Servicios Generales**

| *Kodea lanpostua Código de Plaza* | *Lanpostua / Puesto* | *Lanpostu mota Tipo de puesto* | *Kontratazio erregimena Régimen de contratación* | *Dedikazio erregimena Régimen de dedicación* | *Betetzeko era Forma de provisión* | *Taldea-azpitaldea Grupo-subgrupo* | *Titulazioa Titulación* | *Hizkuntza eskakizuna Perfil lingüístico* | *Derrigortasun data Fecha preceptividad* | *Berariazko betekizunak Requerimientos específicos* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 25 01 79 | Aterpetxe eta gazteriako administraria /<br>Administrativo/a de albergue y juventud | EB / N | L | O / N | L / C | C/C1 | | 2 | 2022/12/31 | 002000 |

| Lanpostuen klabeen deskribapena / Descripcion de las claves correspondientes a tipo de puesto | |
|---|---|
| Lanpostuaren kodea / Código de plaza | *00. Lanpostuaren zenbakia / 00. Lanpostuaren dotazio-zenbakia / 00. Lanpostuaren zenbakia plantillan*<br>*00. Número de puesto / 00. Número de dotación dentro del puesto / 00. Número de la plaza en la plantilla* |
| Lanpostu mota / Tipo de puesto | *EB: Lanpostu ez bakuna / N: Puesto no singularizado* |
| Kontratazio Erregimena / Régimen de contratacion | *L: Lan-kontratu finkoa / Laboral fijo continuo*<br>*D: Aldizkako lan-kontratu finkoa / Laboral fijo discontinuo* (langileen estatutuko 15.8 artikulua / artículo 15.8 estatuto de los trabajadores) |
| Dedikazio erregimena / Régimen de dedicación | *E: Erabatekoa / Exclusiva - EB / N: Ohikoa / Normal* |
| Betetzeko era / Forma de provisión | *L / C: Lehiaketa / Concurso* |
| Titulazioa / Titulacion | *T/A – G/S: Sarbideko taldea / Azpitaldea – Grupo / Subgrupo* |
| | A: *Unibertsitateko graduko tituludunak / Titulados universitarios de Grado*<br>*A1 (*lehen A taldea / antes grupo A) A2 (*lehen B taldea / antes grupo B)*<br>C: *C1: Batxilerra edo teknikaria / Bachiller o Técnico (*lehen C taldea / antes grupo C) C2: DBH-ko graduatua / Graduado en ESO (*lehen D taldea / antes grupo D)* |
| (*) Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren apirilaren 12ko 7/2007 Legeko hirugarren xedapen iragankorreko bigarren paragrafoa aplikaturik<br>En aplicación del apartado segundo de la disposición transitoria tercera de la Ley 7/2007, de 12 de abril, del Estatuto Básico del Empleado Público | |
| **Ikasketa tituluen deskribapena / descripción de las titulaciones académicas** | |
| 100000 | Eskola ziurtagiria / Certificado de escolaridad |
| 200000 | Eskola gradua / Graduado escolar |

5

| | |
|---|---|
| 300000 | Erdi mailako lanbide heziketa / Formación profesional de grado medio |
| 301000 | Erdi mailako administrazio edo merkataritza arloa / grado medio rama administrativa y comercial |
| 303000 | Erdi mailako sukaldaritza / grado medio rama cocina |
| 304000 | Erdi mailako elektrizitate edo elektronika arloa / grado medio electricidad y electronica |
| 305000 | Erdi mailako metal arloa / grado medio rama metal |
| 400000 | Goi-mailako lanbide-heziketa / Formación profesional grado superior |
| 401000 | Goi mailako elektrizitate edo elektronika arloa / Grado superior electricidad y electronica |
| 402000 | goi mailako metal arloa / Grado superior rama metal |
| 403000 | goi mailako administrazio edo merkataritza arloa / Grado superior administrativa y comercial |
| 404000 | goi mailako sukaldaritza / Grado superior restauracion |
| 405000 | goi mialako itsasontziaren makinak eta instalazioak gainbegiratzea eta kontrolatzea<br>Grado superior supervisión y control de máquinas e instalaciones del buque |
| 406000 | Gizarte- eta kirol-irakaskuntzako eta -animazioko goi-mailako teknikaria (lehen, Gorputz- eta kirol-jardueren animazioko goi-mailako teknikaria), bai eta animazio- eta kirol-jardueretako monitore/entrenatzaile gisa jarduteko gaitzen duen goi-mailako beste edozein titulazio ere / Técnico/a superior en enseñanza y animación socio-deportiva (anteriormente Técnico/a Superior en Animación de Actividades Físicas y Deportivas), así como cualquier otra titulación superior que habilite para ejercer como monitor/a/entrenador/a de actividades de animación y deportivas. |
| 500000 | A sailkapen-taldeko A2 azpitaldean sailkatutako lanpostuak. ingeniari teknikoaren titulua, unibertsitateko diplomaduna, arkitekto teknikoa, hirugarren mailako lanbide-heziketa, doktorea, lizentziatua, ingeniaria edo arkitektoa, edo enplegu publikora sartzeko ondorioetarako gradu baliokidea. / Puestos encuadrados en el grupo de clasificación A, subgrupo Aa2. título de ingeniero técnico, diplomado universitario, arquitecto técnico, formación profesional de tercer grado, doctor, licenciado, ingeniero o arquitecto, o grado equivalente a los efectos del acceso al empleo público. |
| 500001 | Informazio eta Dokumentazioko Graduari, Bibliotekonomiako eta Dokumentazioko Diplomari, Bibliotekonomiako masterra duen Unibertsitate Lizentziaturari, artxibistikari edo baliokideari dagokiona / Grado en Información y documentación, Diplomatura en biblioteconomía y Documentación, Licenciatura Universitaria con máster en Biblioteconomía, archivística o equivalente. |
| 600000 | Unibertsitate lizentziatura / Licenciatura universitaria |
| 601000 | Medikuntzako lizentziatura edo MECESeko 3. mailaren baliokidea den gradua / Licenciatura en Medicina o Grado equivalente al nivel 3 de MECES |
| 602000 | Zuzenbideko Lizentziatura edo MECESeko 3. mailaren baliokidea den Gradua. / Licenciatura en Derecho o Grado equivalente al nivel 3 MECES |
| 603000 | Ekonomia eta Enpresa Kudeaketaren arloko titulazio bateko gradua edo lizentzia, Gizarte eta Lege Zientzien arloaren barruan / Grado o Licenciatura en una titulación perteneciente al ámbito de Economía y Gestión Empresarial, dentro del Área de Ciencias Sociales y Jurídicas Económicas |

**Berariazko betekizunak / Requerimientos específicos**

| | |
|---|---|
| 001000 | *Nabigatzeko gaitasun agiria / Certificado de aptitud para navegar* |
| 002000 | *"B" gida baimena / Permiso conducción "B"* |
| 003000 | *Arrantza-patroia, portukoa edo baliokidea / Patrón de cabotaje, portuario o equivalente.* |
| 004000 | *Entrenatzailearen I. mailako titulazioa (edo baliokidea), espezialitate hauetan: bela (uztailaren 23ko 935/2010 Errege Dekretura egokituta), piragua (urriaren 30eko 981/2015 Errege Dekretura egokituta) edo arrauna. Titulazio hori baliozkotu egingo da natura-inguruneko eta aisialdiko gidari-teknikariaren titulua badute, bai eta arraunketako, piraguako edo belako lanbide-moduluak dituen beste edozein titulazio baliokide edo goragokoa ere / Titulación correspondiente al Nivel I (o equivalente) de Entrenador en las especialidades de Vela (adaptado al Real Decreto 935/2010, de 23 de julio), Piragua (adaptado al Real Decreto 981/2015, de 30 de octubre) o remo. Esta titulación será convalidada si se están en posesión del Título de Técnico en guía en medio natural y tiempo libre, así como cualquier otra titulación equivalente o superior que contenga módulos profesionales de remo, piragua o vela.* |
| 005000 | *Haurren eta gazteen aisialdiko hezkuntza jardueren zuzendari titulua (edo baliiokidea) edo, bestela, gazteen aterpetxeko zuzendari postuan 4 urteko esperientzia egiaztatzea*<br>*Título de Dirección de Actividades Educativas en el Tiempo Libre infantil y Juvenil (o equivalente) o alternativamente acreditar una experiencia de 4 años en un puesto de Dirección de Albergue Juvenil* |
| 006000 | *Haurren eta gazteen aisialdiko hezkuntza jardueren zuzendari titulua (edo baliiokidea) / Título de Dirección de Actividades Educativas en el Tiempo Libre infantil y Juvenil (o equivalente)* |
| 007000 | *Haurren eta gazteen aisialdiko begirale titulua (edo baliokidea) / Título de Monitor/a de Tiempo Libre Infantil y Juvenil (o equivalente)* |

6

Firmante: CN=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 267116
Fecha de firma: 2026.03.03 10:34:16 Z



Firmante: CN=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 267116
Fecha de firma: 2026.03.13 06:32:27 Z